



Gasteiz eta euskara: Ibilbide historiko bat

Iñaki Lazkano Lizundia

Euskal filologian lizentziatua. Bartzelonako Euskal Etxeko kultur teknikaria

kiski_il@yahoo.es

Sarrera-data: 2012-11-15 / Onartze-data: 2012-12-17

Laburpena. Gasteizen euskarak edo euskararen Gasteizek utzitako arrastoarekin mapa bat irudikatzea izan da lan honen helburua. Egitasmoak 2011an Topaguneak -Euskara Elkartearen Federazioak- egindako eskaera bati erantzuten dio, hau da, Gasteizek eta Euskarak komunean duten historiaren ibilbide gidatua antolatzea Arabako Mintzalagun egitasmoen egunerako. Lana bost ataletan antolatuta dago: 1) Filologia eta historia, 2) Irakaskuntza eta Hezkuntza, 3) Gizarte Mugimenduak, 4) Helduen alfabetatze eta euskalduntzea eta 5) Kultura: bertsolaritza, literatura eta musika. Egindako azterketaren emaitza laburbiltzen du lan honek, eta irakurlearen esku jartzen ditu gure euskal aztarnen arrastoak jarraitzeko zertzelada batzuk. • **Hitz-gakoak:** *historia soziolinguistikoa, euskara, kultura euskalduna, filologia.*

Abstract. The aim of this work was to draw a map illustrating how the Basque language has influenced the city of Vitoria-Gasteiz, and how Vitoria-Gasteiz has influenced the Basque language. The project was initiated in response to a request from Topagunea (the Federation of Basque Language Associations) in 2011. The idea was to organise a guided tour of the common history shared by the city and the Basque language, as part of the Arabako Mintzalagun day project. The work is divided into five sections: 1) Philology and History, 2) Teaching and Education, 3) Social Movements, 4) Adult literacy and Basque language learning and 5) Culture (Basque improvised verse, literature and music). The work summarises the results of the research project, and provides readers with some clues for following the trail left by the Basque language.. • **Key words:** *sociolinguistic history, the Basque language, Basque culture, philology.*

SARRERA

I

2011ko urtarrilean, Topaguneak -Euskara Elkartearen Federazioak- honako hau proposatu zigun euskaltzale talde bati: Gasteizek eta Euskarak komunean duten historiaren ibilbide gidatua antolatzea Arabako Mintzailagun egitasmoen egunerako.

Zenbait bileraren ostean eta jende andanarekin hitz egin eta gero, lortu genuen ibilbide itxurako historia laburpen bat osatzea: Gasteizen euskarak edo euskararen Gasteizek utzitako arrastoarekin mapa bat irudikatzea:

“ATZO, GAUR ETA BIHARKO GASTEIZ EUSKALDUNA”

Bost ataletan antolatu genuen:

Filologia eta historia.

Irakaskuntza eta Hezkuntza.

Gizarte Mugimenduak

Helduen alfabetatze eta euskalduntzea.

Kultura: bertsolaritza, literatura eta musika.

GEU elkarteko kideek egin zuten aurkezpen orokorra, baita atalkoak ere, ibilbide osoari hari komun bat eman nahian. Bizpahiru gonbidatuk gai bakoitzaren inguruko istorio eta bizipenak azaldu zituzten atal bakoitzean, sarrera labur baten ondoren.

Ibilbidea Gasteizko Alde Zaharrean egin zen, bertan ospatu baitzen arestian aipatutako eguna, eta gutxi gorabehera bi ordu iraun zuen.

Kontuan har beza irakurleak kalean egindako ibilbide gidatu baten kronika edo testigantza izan nahi duela lan honek, eta halabeharrez, batzuetan sintetikoegia gerta dakioketela azalpena. Ez da lan akademikoa, ezta filologikoa ere; Gasteizko euskararen historia sozialarekin du harremana, idazteke dagoen historia sozial horrekin. Egingo ahal da egunen batean Gasteizko historia soziala bilduko duen lan mardula!

Bien bitartean, hemen ditu irakurleak zertzelada batzuk, hemen du gure euskal aztarnen arrastoak jarraitzeko parada.

1. GASTEIZ, HISTORIA ETA FILOLOGIA

I

GEU elkarteko kideek ibilbide osoan zehar zer edukiko genuen ondo azaldu eta gero, Oihanederra jauregiaren barruko patioan sartu eta azalpenei ekin genion; lehenengo gonbidatua **Kike Fdez.de Pinedo** izan

**Kalean egindako
ibilbide gidatu
baten kronika
edo testigantza
izan nahi du lan
honek; Gasteizko
euskararen
historia
sozialarekin du
harremana,
idazteke dagoen
historia sozial
horrekin.**

**Donemillaga
Kukullako
agirian, “Reja de
San Millan”
izenaz ezagutzen
den agirian,
Gasteiz herria
aipatzen da.
Pentsatzekoa da
gaur egungo
Vitoria-Gasteiz
izango zela
aipatutakoa.**

zen: “Gasteiz eta Euskara atzera begira” izenburupean historia eta filologiaren inguruko hainbat arloz hitz egin zigan.

1.1 Lehenengo aipamena: Gasteiz, 1025

Donemillaga Kukullako agirian, “Reja de San Millan” izenez ezagutzen den agirian, **Malizhaeza** herri taldeak bere baitan zein herri hartzen zituen azaltzen da. Beste herri askoren artean, **Gasteiz** herria aipatzen da. Pentsatzekoa da gaur egungo Vitoria-Gasteiz izango zela aipatutakoa.

Balizko azalpen etimologikoa: **Gaste** (pertsona izena) + **IZ** (leku atzizkia)

1.2 Beste aipamen batzuk: Gasteiz leku izena, noiz eta nola:

- 1089 Alvaro Gonsalvez de **Gasteiz**
- 1181 “Novum nomen imposui scilicet Victoria que antea vocabatur **Gasteiz**” Nafarroako Santxo VI.ak Nova Victoria sortu zuenean.
- 1484 “..la hermyta de **gasteays**...”

1.3 Gasteizen, izan baziren euskaldunak

Hainbat lekukotasun historikoren berri eman zigan:

- 1265 Pedro Garceiz de Mendiola: “... e porque este testigo es vascongado fizol las demandas...”
- 1512 .Gasteiz eta Herrien arteko 1512. urteko lekukoaren hitzak: “que la palabra Urundiru es vascuneçe e que en castellano quiere dezir dinero de arina, porque urun quiere dezir arina, e diru quiere dezir dinero... y que lo sabe porque este testigo es vascongado e sabe tambien romance castellano e porque asy es publico e notorio entre vascongados”
- 1511 urtean, Epaiaketa Apinaizko jauntxoa eta herritarren artean “...suplico a vuestra altesza porque los mis partes son **bascongados** e tienen que hazer sus probanzas con bascongados asi en la tierra de Arraya como en la **jurisdicción de Vitoria** e otras partes bascongadas nos mande nombrar e señalar un **receptor vascongado**”

1.4 Pertsona izenen inguruan

Izen eta goitizen euskaldun ugari eta mota askotariko agertu zaizkigu historian zehar agiri ezberdinetan:

Pero **Baltza**, **Begieder**, Johan Martinez **Hederra**, **Gizon** de Arkaia, Juan Perez **Gastea**, Ochoa **Barria**, Pedro **Escutari**, **Txipito** de Arkaia.

1.5 Gasteiztik pasatako bidaiariak

Bidaiariak utzitako kronika eta testigantzen berri eman zigan jarraian:

A. Navagiero (1525) eta G.B. Venturino (1572) italiarrek Gasteizko herritarren euskalduntasuna azpimarratzen dute: "...parlando Biscaino o Basconcado..." ibiltzen zirela zioten bidaiari hauek.

Aipamen berezia merezi izan zuen Nicolao Landuchiok, Italiako Luca herriko semeak, eta bere "Bocabulario"k, 1562. urtean: *Dictionarium linguae cantabricae*, Bocabulario ezqueraz jaquiteco eta ezqueraz verba eguiteco.

Ia 6000 hitzen bilduma egin zuen gizon honek eta pentsatzen da, jasotako hitzen ezaugarriak direla eta, Gasteizen jaso zituela hitzok. Adibideak ere ipini zizkigun:

Amauia	Jurado de la ciudad
Çamargina calea	Calle de Pellejeros
Errexala	Árbol
Achitamachia	Mariposa
Assabeamea	Abuela
Chisacurrik nago	Aver gana de mear

A. Navagiero (1525) eta G.B. Venturino (1572) italiarrek Gasteizko herritarren euskalduntasuna azpimarratzen dute.

1.6 Hedapen historikoa

Historian aurrera eginda, XVIII. mendera heldu ginen. Kikeren hurrengo azalpenak euskararen hedapenarekin izan zuen zer-ikusia: Araban, non zen nagusi euskara artean; hau da, zein herri eta eskualdek jarraitzen zuten euskaldun izaten.

Horretarako **Joaquin Joseph Landazuri** ekarri zuen ahora, 1798an idatzitako hitz hauekin:

"Aunque en los tiempos antiguos fue tan general en Alava el uso del idioma bascongado,(...),no obstante, de algunos años a esta parte, va en ella en notable decadencia este idioma. (...) Sin embargo,(...), se conserva aun todavía en ella en veintidos hermandades." (Landazuri, 1798)

1.7 XIX. mendeko testigantzak

1803.urtean Urizaharra herriko **Diego Lorenzo Prestamerok** Wilhem Von Humboldt hizkuntzalariari bidalitako eskutitza:

"Hermandad de Vitoria: En muchos pueblos de esta hermandad particularmente en los situados el norte se habla bascuence y romance y en Vitoria por razon del comercio casi todos le hablan. 2198. vezinos ind. [?]3 1769".

“Aunque en los tiempos antiguos fue tan general en Alava el uso del idioma bascongado, (...), no obstante, de algunos años a esta parte, va en ella en notable decadencia este idioma. (...) Sin embargo, (...) se conserva aun todavía en ella en veintidos hermandades”.

Mende honetan ere bidaiari askok aipatu zuten Gasteizko herritarrek euskaldunak zirela:

1875 Wilhem Mhor alemaniarrek:

“...Ganadu plazara zuzendu nintzen, nire begien aurrean zaldi bat guztiz ederra ikusi nuen. Zaldi gainean zihoan gazteari salgai ote zegoen galdetu nion. Mutiko euskaldunak ez dit ulertzen, baina musu gorriko beste mutiko batek itzultzaile lana egin zigun...” (Mhor, 1875)

1869ko uztailaren 8an, **Henry Morton Stanley** esploratzaile ospetsuak esana:

“...Nada más apearme en la estación de Vitoria me ví asaltado por una multitud de lugareños con boinas azules y rojas que, en puro vasco, anunciaban los nombres de los hoteles ...” (Morton Stanley, 1869)

1.8 Gasteizko leku izen euskaldunak

Jarraian, Historia albo batera utzi, eta Gasteizko leku izen euskaldunen errepasoa egin zuen:

Palazietako landea, Zidorra, Molinatxo, Ibarrea, Erditakobidea, Etxabidea, Etxagorritxo, Barrencalle(1590), Juandonejoanesbidea, Aldabe (Martinus Pietri D’Aldavehe 1288)

Kurutzezuri, Justiziagana, Kaskaxueta, Mendizabala, Mendizorro-tza, Aranbizkarbide, Judimendi, Ariznabarra, Sarburua, Aransabela...

1.9 Voces Alavesas

Gasteizen, gaztelaniaz, erabili izan diren -eta gaur egun oraindik erabiltzen diren- hainbat euskal hitz ere ekarri zizkigun gogora, adibidez:

- Aran – endrina
- Cil –ombligo
- Corrusco-
- Chalo/chalitos-
- Chichiqui-
- Chocholo
- Chori- lazo en el pelo
- Kili-kolo
- Larri
- Ondarras
- Lo-lo

1.10 Euskararen lagunak

Amaitzera zihoan azalpen historiko-filologiko hau, baina ezin aipatu gabe utzi euskararen aldeko suspertzaile sutsuak. Labur-labur bakoitzaren inguruko zerbait esan zuen:

XVIII ETA XIX. MENDEETAN:

- **Joaquin Josef de Landazuri y Romarate** (Gasteiz 1730-Gasteiz 1805): Arabako historialaria, Gasteizko alkate 1798an eta “Euskal Herriaren Lagunak-Sociedad Vascongada de Amigos del País” elkarteko kide esanguratsua. Arabako leku izenen etimologia aztertu zuen.
- **Diego Lorenzo Prestamero Sodupe** (Urizaharra 1733-Gasteiz 1817): Historialari, idazle eta apaiz arabarra. Hau ere, “Euskal Herriaren Lagunak-Sociedad Vascongada de Amigos del País” elkarteko kide. Arabako herri izen euskaldunen etimologia aztertu zuen.
- **Mateo Moraza Ruiz de Garibay** (Gasteiz 1817-Gasteiz 1878): Gasteizko semea, ogibidez abokatu eta politikoa. Foruen defendatzaile sutsua. Prohibitziaren aita. “Gasteizko Unibertsitate Libre”ko errektore (1869).
- **Ramon Ortiz de Zarate Martinez de Galarreta** (Arriola 1817-Gasteiz 1883):
 - Politikoa eta idazle foruzalea. 1861ean aldun nagusi izendatu zuten, “Euskal Katedra” eskatu zuen arabarako. Euskaltzalea. “Nafarroko euskarazko elkargoa- Asociación Éuskara de Navarra” elkarteko ohorezko kidea:
 - **Ricardo Becerro de Bengoa** (Gasteiz 1845-Madril 1902): Irakasle, idazle, politikari, kazetari eta ikerlari gasteiztarra.
 - Beste liburu askoren artean, “*Beti-Bat eta Aurrera*” liburua idatzi zuen:
 - **Federico Baraibar Zumarraga** (Gasteiz 1851-Gasteiz 1918):
 - Irakasle, idazle eta politikoa. Gasteizko alkate (1897-1902), Gasteizko Intitutuko zuzendari, Gasteizko Ateneoko eta Aldundiko presidente.
 - **Fermin Herran y Tejada** (Añana 1852-Bilbo 1902) idazle eta ikeritzaile euskaltzale eta mezenas masoi arabarra. Euskal Pizkundeko egile arabarrik nabarmenetarikoa, “Biblioteca Bascongada” delakoaren sortzailea izan zen. “Revista de las Provincias Euskaras” aldizkaria martxan jarri zuen 1878an, Gasteizen.

XX. MENDEAN:

Euskararen aldeko gerra aurreko ekimenak

1936. urterarte Gasteizko apaizgaitegian euskararen eta euskal kulturaren aldeko lan itzela egin zuten hainbat apaizek besteak beste, Jose Miguel Barandiaran (1889-1991) eta Manuel Lekuona (1894-1987). Manuel Lekuonak 1915ean euskara irakasten hasi zen apaizgaitegian bertan,

*“...Nada más
apearme en la
estación de
Vitoria me ví
asaltado por una
multitud de
lugareños con
boinas azules y
rojas que, en
puro vasco,
anunciaban los
nombres de los
hoteles...”.*

**Lagun talde
zabal honek lortu
zuen euskara
bizirik
mantentzea
Arabian, eta
atzetik etorriko
ziren
belaunaldiei
ekimen horretan
jarraitzeko gogoia
transmititzea.**

eta Barandiaranekin batera “Kardaberaz” lantaldean aritu ziren euskararen ikerkuntzan.

Urte haietan nabarmentzekoa da “Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos” elkarteak egindako lana. Elkarte horrek bultzatuta eratu zen “Baraibar Taldea” 1928an. Talde honek helburu orokor bat zuen: euskararen ezagutza probintzia osora zabaltzea. Garai haietan sortu zen Arabako lehengo ikastola.

Giro honetan ibili ziren honako euskaltzale hauek:

• **Raimundo Olabide (Gasteiz 1869-Toulouse 1942):**

Jesuita, idazle eta 1919an euskaltzain oso izendatua. “Itun zahar eta berria” 1958. Raimundo hil eta gero argitaratu zen berak itzultitako Biblia.

Euskara 27 urterekin ikasten hasi, eta Biblia itzultzeko gai izan; ez da meritu makala, ezta?

• **Odon Apraiz Buesa (Gasteiz 1896-Gasteiz 1984):**

Euskal idazle, hizkuntzalari eta ikerlaria. 14 urte zituela hasi zen euskara ikasten. Hainbat aldizkaritan idatzi zuen. Euskaltzain urgazle eta ohorezko.

“*El vascuence en Vitoria y Alava en la ultima centuria (1850-1950)*” saiakera liburua idatzi zuen.

Odon Apraizek egin zuen Internacionala abesti sozialistaren aurreneko itzulpena euskarara.

• **Luis Gonzalez de Etxebarri (Ubide 1893-Buenos Aires 1971):**

Idazle eta kazetaria. Aita gasteiztarra zuen eta ama Eskoriatzakoa. Gasteizen ikasi zuen batxillegoa. Artikulu, ipuin eta poema ugari idatzi zituen euskaraz.

• **Gerardo Lopez de Guereñu Galarraga (Gasteiz 1904- Gasteiz 1992):**

Arabar etnografoa izan zen. Herrialde honetako etnografian, folklorea eta toponimian erreferentziazkoak diren lan ugari egile, historialari eta argazkilari lanetan ere nabarmendu zen.

Erdaraz idatzi bazuen ere, bere lanek duten garrantziagatik Euskaltzaindiak euskaltzain ohorezko izendatu zuen eta “Arabako etnografiaren aitalahena” dela esan ohi da.

• **Andoni Urrestarazu Landazabal “Umandi” (Araia 1902-Gasteiz 1993):**

Euskal idazlea. 17 urte zituela hasi zen euskara ikasten Araian jaio-tako euskaltzale sutsu hau. 1936, 1942 eta 1953an euskara irakasten ziharduela jakin badakigu.

1953an Parisa joan zen erbesteratua, eta han, Eusko Jaurlaritzan aritu zen lanean. Euskaltzain urgazlea izan zen eta *Euzko Gogoa*, *Euzko Deya*, *Egi Billa*, *Alderdi*, *Herria*, *Euzko Gaztedi* eta *Azkatasuna* agerkarietan eman zituen argitara lan aipagarrienak.

“*Gramática Vasca*” (1955), gerra ondoren idatzitako lehen euskal gramatika osatu zuen.

• **Peli Lopez Presa**

Umandiren ikasle, euskararen alde egin zituen ahaleginetan eta euskarazko klaseak giro atseginean ematen punta-puntako gizona izan zen. Ehundaka gasteiztarrek ikasi zuten euskara Pelirekin.

• **Eusebio Osa** (Bergara 1936-Gasteiz 1993)

Gasteiza apaizgai etorri zen beste hogeita hamarren bat gazte euskaldunekin batera. Haietako 10-12 Gasteizen bota zituzten erroak eta erabat murgildu euskararen irakaskuntzan.

Euskararen irakasle, idazle, pedagogo, ekintzaile... gaueskoletan, ikastolan, mezatan, kalean, irakasle eskolan, bertsotan... Bergaran, Oñatin, Gasteizen, Renon... Bizitza osoa eman zuen euskararen aldeko lanetan.

• **Izaskun Arrue Goikoetxea** (Arribe 1927):

Gasteizko gerra osteko lehenengo andereñoa. 1963an Zerkabarren kaleko bere etxean, 14 umeri eskolak euskaraz ematen hasi zen. Etxe horretan erein zen Olabide ikastolaren hazia. Ikastola horren hastapenetan oinarri sendoa izan zen Izaskun.

• **Pedro Pujana Agirregabiria** (Oleta, Aramaio 1915-Bilbao 2001)

“*Euskera Araban*” izeneko lan interesgarria burutu zuen Pedro Pujanak 1998an.

Jendarte honek eman zion araban euskarari “*behar duien thornuia*” azken bi mendeetan, eta haiek izan ziren euskalduntasunaren grina bizirik mantendu zutenak gure probintzian.

Lagun talde zabal honek lortu zuen euskara bizirik mantentzea Araban, eta atzetik etorriko ziren belaunaldiak ekimen horretan jarraitzeko gogoa transmititzea.

2. GASTEIZ, EUSKARA ETA IRAKASKUNTZA

I

Lehenengo azalpena entzun eta gero, jabetu ginen euskara ez zela arrotz Vitoria izeneko gure hirian, testigantza ezberdinei eta leku izenei

Duela berrogeita zortzi urte sortu zen Gasteizko lehenengo ikastola.

***Izena aukeratu
beharra zegoen
eta Raimundo de
Olabide
gasteiztar
euskaltzaleaz eta
gizon honek
euskararen alde
egin zuen lanaz
gogoratu ziren.***

***1988/89
ikasturtean,
Koldo Mitxelena
institutua abian
jarri zen, eskola
publikoan
irakas-maila
ertainean.***

erreparatuz behinik behin, eta denbora luzean ibili zirela hainbat gasteiztar, urtez urte, mendez mende, euskarari arnas eman nahian.

1977an, adibidez, Arabako 163 elkartek euskararen ofizialtasuna eta Euskal Katedra bat sortzea eskatu zuten. Urte horretan bertan, Arabako Foru Aldundiak euskara ondare kultural izendatzen du. Handik gutxira, 1977-1978. ikasturtean jarri zen martxan eskatutako Euskal Katedra hori Koldo Mitxelenaren gidaritzapean. Espainiako unibertsitate publiko batean sortzen zen lehen Euskal Katedra izan zen.

Bigarren azalpenean gai zehatz bati ekin zioten gonbidatuek, eta jauzi handia egin zuten denboran: XX. mendeko 60ko hamarkadara salto egin eta gaur egun arte, 50 urteko historia. Irakaskuntza eta Hezkuntzari buruzko historia txikiak; hitz larriz idatzi beharreko historia txikiak.

2.1 Gasteizko lehenengo ikastola. 1963

Maritxu Goikoetxea andereñoak hartu zuen hitza eta kontatu zigunez, duela berrogeita zortzi urte sortu zen Gasteizko lehenengo ikastola (1963. urtean), dena den, izen hori erabili ahal izateko, “Ikastola” izena ofizialki erabiltzeko, urte batzuk gehiago pasa behar izan ziren.

Esan bezala, 1963. urtea zen, eta Nafarroatik etorritako **Izaskun Arrue** andereñoa Zerkabarren kaleko etxe batean euskaraz irakasten hasi zen - guraso euskaltzale batzuk horretan tematu zirelako-, hamalau umeri. Hirugarren urterako, 32 haur ari ziren “ikastola” hartan, eta zegoeneko ez ziren sartzen. Leku berri baten beharra begibistakoa zela pentsatu zuten.

Zerkabarren kalea utzi eta Estibalizko Andre Mari Zuriaren hiribidera aldatu ziren, kale horretako txalet batera. Aldaketak sekulako oihartzuna izan zuen eta hurrengo ikasturtean 80 ziren jada matrikulatutako haurrak. Bigarren eta hirugarren urteetan ume kopurua handituz joan zen, eta ondoko txaletak ere “Ikastola” bilakatu behar izan zituzten.

Arrakasta horrek eraikin berri eta bakar baten beharraz ohartarazi zituen irakasle zein gurasoak; beraz, nola eta non egin hausnartzen hasi ziren. Hausnarketatik ekintzetara pasatu, diruak eta gogoak bildu, eta laster jarri zuten martxan Gasteizko lehen ikastola.

1973. urtean hasi ziren eskolak ematen Lasarteko bidean dagoen ikastolan. Urte hartarako ikasle kopuruak gora egin zuen nabarmen: hamar urteren buruan 14 ikasle izatetik, 578 izatera pasa ziren.

Izena aukeratu beharra zegoen eta **Raimundo de Olabide** gasteiztar euskaltzaleaz eta gizon honek euskararen alde egin zuen lanaz gogoratu ziren. Garai hartako (1973. urtea) agintari frankisten aginduz “Colegio Raimundo de Olabide” izan zen izen ofiziala; hala ere, hasieratik denek “**Olabide Ikastola**” deitu zioten.

Aipamen berezia egin zien Maritxuk urte latz haietan lehenengo ikastola ahalbidetu zuten guraso, andereño, laguntzaile, bultzatzaile eta abarrei, egindako lan eskerga eta agertutako prestutasuna ez baitzen izan nolanahikoa.

2.2 Sare publikoan D eredua hedatzen

Nahiz eta kontrakoa iruditu, duela ez hainbeste, 80ko hamarkadan, ez zen hain erraza sare publikoan euskaraz ikastea. Borroka eta aldarrikapen egunak, hilabeteak eta urteak izan zirela kontatu zigun **Koldo Zubizarretak**. Guraso zein seme-alabek protesta ekintza ugari egin behar izan zituztela D ereduko ikasketak bigarren hezkuntzara zabaltzeko eta Gasteizen institutu euskaldun bat lortzeko.

1988/89 ikasturtean, **Koldo Mitxelena** institutua abian jarri zen, eskola publikoan irakas-maila ertainean ikasketak euskaraz burutu ahal izatearen alde hainbat euskaltzalek egin zuten aldarrikapenaren ondorioz.

Harrez gero, neska-mutil ugari pasa dira bertoko ikasgeletatik, familia erdaldunetakoak gehien-gehienak, eta euskaraz egin dituzte ezin konta ahala azterketa, txosten edo idazlan. Euskaraz entzun dituzte irakasleen azalpenak, errietak eta animo-hitzak. Euskaraz ikasi dute Koldo Mitxelenan.

Institutu honek hasitako bideari jarraiki apurka-apurka D eredua hedatzen joan zen gure hirian, eta gaur egun selektibitate aurkeztutakoena erdiek froga hori euskaraz egiten dute Gasteizen. Aipatzekoa, bidenabar, Gasteizko guraso gehienek A ereduari bizkarra eman eta beren seme-alabentzat irakaskuntza euskalduna aukeratzen dutela gaur egun.

Badira hutsuneak, eta batzuk oso handiak, Lanbide Heziketan batik bat. Ahalegin ugari egin dira, baina emaitzak urriak dira oraindik.

Hurrengo erronka? Eskoletan euskaraz trebatutako gazte euskaldun horiek bolo-bolo erabiltzea euskara kalean, etxean, lanean...

2.3 Alde Zaharreko eskola: kultur-aniztasuna eta erronka berriak

Aurreko txandan Koldo Zubizarretak “erabilera”ren erronka aipatu zigan, hau da, euskaraz ikasitako gazteek eskolatik kanpo euskara erabil dezaten egin beharreko lanaz. Baina, badira bestelako erronkak hezkuntza eta euskararen munduan, eta horietako bat da kanpotik etorritako gurasoek beren seme-alabak D ereduan matrikulatzea, orain arte joera nagusia kontrakoa baita, A ereduaren aldekoa. Horren inguruan eta Alde Zaharrekin lotutako beste kontu batzuen gainean aritu zitzaigun Amelia Barquin, “Gasteiz-Ramon Bajo” ikastetxeko Guraso Elkarte kidea:

**Euskal Herrian
Euskaraz taldea
1980. urtean
sortu zen hego
eta ipar Euskal
Herrian.**

***Euskaltegietan
eta gau eskoletan
euskara ikasten
ari ziren lagun
batzuei otu
zitzaien klasetik
at biltzeko eta
euskara
praktikatzeko
leku bat behar
zutela.***

***Pentsatu eta
egin. Taberna bat
erosi zuten
Aiztogile kalean
1987an eta
Bagare Euskal
Tokia sortu.***

Auzoko eskolaz, Alde Zaharreko eskolaz, eta azken hamar urteetan izandako garapenaz hitz egingo zigula esan zigun hizlariak. Eta horrela hasi zen:

“2002an Gasteizko Alde Zaharrean dagoen eskola bakarra A ereduakoa zen eta bertara joaten ziren umeak etorkinen edo ijitoen seme-alabak ziren. Ghattizazio prozesu batean sartuta zegoen”.

2003an bi urteko gela bat, bi urteko haurrentzat izango zen gela bat, ireki zen eskola horretan Gasteizko eskaera orokorra handitu baitzen. Kurtsoa amaitzean, guraso talde batek, Amelia tartean, D ereduakoa gela hori bertan gera zedila eskatu zuten. Izan zedila gela hori D ereduakoa lerro baten hazia, hasierako kimua. Ordezkaritzak onartu egin zien egindako eskaera.

2004. urtea oso interesgarria izan zela esan zigun Ameliak, Eskola Kontseiluak Ramon Bajo ikastetxea D ereduakoa izango zela onartu zuelako. Ez A eta D ereduakoa eskola, soilik D ereduakoa. A ereduak orduan ari zirenekin agortuko zela eta 2004tik aurrera, gela berrietan, soilik D ereduak eskainiko zutela.

Zergatik? Beste eskola batzuetan gertatukoak ikusita ez zuten nahi, eredu bikoitza izanik, etorkinen eta ijitoen seme-alabak A ereduak eta besteenak D ereduak geratzea. Ikasle guztiak batera egotea nahi zuten. Oso erabaki zaila izan zen, euskara ez zekiten irakasle batzuk bazirelako eta gurasoak konbentzitu beharra zegoelako.

Urteek aurrera egin ahala klaustroa inplikatzeko joan zen, gurasoak beldurrak kentzen eta D lerro hori aurrera doala azaldu zigun.

2011an zortzi urte pasa dira erabaki hori hartu zenetik, eta D ereduak 4.mailan dago. Bi urte barru D ereduakoa eskola izango da “Gasteiz-Ramon Bajo ikastetxea”. Etorkinek eta ijitoek jarraitzen dute beren umeak matrikulatzen eta “bertakoak” ere hasi dira apurka-apurka konfiantza hartzen eta umeak auzoko eskolara ekartzen.

Dagoeneko 165 ikasle ditu eskolak, zortzi urtetan hirukoiztu egin da ikasle kopurua, eta auzoan D ereduakoa eskola bat dago, kultur-anitza eta kolore askotarikoa.

Amaitzeko zera esan zigun: beraientzat euskara kohesio tresna dela; gurasoak leku askotatik etorritakoak izan arren, haur guztiak direla euskal herritar eta euskaldun; denek batera eta gela berean ikasten dutela; elkarrekin ari direla eta elkarri laguntzen diotela.

Oso interesgarritzat jo zuen lorpena eta esan zigun oraintxe bertan erreferente bilakatu direla irakaskuntzaren munduan kultu-artekotasuna edo aniztasunari jorratzeari dagokionez.

3. GASTEIZ, EUSKARA ETA GIZARTE-MUGIMENDUAK

I

“Gasteiz-Ramon Bajo” ikastetxetik Aiztogile kaleko Errexala elkartera egin genuen jauzi. Orain, bertako bazkideak ederto aritzen dira lapiko artean; eta lehen, **Bagare Euskal Tokia** zenean, euskararen saltsan ibiltzen ziren.

“Gizarte mugimenduak eta euskara” gaiari haginika egiteko irrikan geunden, eta horretarako, hemen ere, gonbidatu taldetxo bat zegoen azalpenak emateko prest::

3.1 Euskal Herran Euskaraz

“Euskal Herrian Euskaraz taldea 1980. urtean sortu zen hego eta ipar Euskal Herrian, eta intelektual talde batek irrati bat okupatu zuen Donostian, euskaraz egin zedila eskatzeko”, hauek izan ziren **Karmele Madinabeitiak** esandako lehen hitzak, eta gero Gasteizko taldea nola sortu zen eta zer langintzak egin zituen azaldu zigun. Esan bezala, EHE hego eta ipar Euskal herrian barrena antolatu zen. Araban, Gasteizen eta Aiaran sortu zituzten taldeak.

Gasteizen, jende gaztearekin osatu zen taldea: euskararen inguruan zebiltzan ikasle eta irakasleak, euskal filologiako ikasleak, baita magisteritzakoak ere; eta bazkide laguntzaileak: diru apurtxo bat ipintzeko prest zeuden lagunak.

Nazio mailako ekintzak: Komunikabide euskaldunen beharra aldarrikatu, administrazioan euskaldunen eskubideak exigitu, hauteskundeetan euskararen presentzia bermatu, trafiko seinaleak ezabatu, euskal izenak eskatu, etab...

Araban egin ziren ekintzen berri ere eman zigun: Kultur asteak, enkarteladak, udal plenoetan protestak, tabernetako menuak euskaratu, kartelak euskaratu, etab...

Horretaz gain, epaitegietan ere galtzak bete lan ibili ziren. Burututako zenbait ekintzaren ondorioz, taldeko hainbat kidek epailearen aurrera joan behar izan zuten, eta egoera hori aldarrikagune eginez, deklazioa euskaraz egitea eskatzen zuten.

Gasteizko proiektua Euskal Toki bat egitea izan zen, eta nahiz eta beraiek zuzenean ez egin, Bagare Euskal Tokiaren sortze lanetan parte hartu zuten

3.2 Bagare Euskal Tokia

Euskaltegietan eta gau eskoletan euskara ikasten ari ziren lagun batzuei otu zitzaien klasetik at biltzeko eta euskara praktikatzeko leku bat behar zutela. **Jose mari Samaniegoren** hitzetan, pentsatu zuten taberna bat

**Gasteiz izan zen
aldizkari
euskalduna
ateratzen lehen
hiriburua: “Gen
Gasteiz”.**

GEU elkarteak, aldizkaria ateratzeaz gain, beste helburu eta egitasmo ugari izan ditu 20 urte hauetan, eta egun, hasierako helburuei eusten die: Gasteizen euskararen erabileraren inguruan eragitea eta Gasteizko euskaldunen komunitatea trinkotzea.

erostea aukera ona izan zitekeela euren asmoak aurrera ateratzeko; taberna, bilgune eta ekitaldiak egiteko lekua izateaz gain, autofinantzaziorako tresna ere izan zitekeela

Pentsatu eta egin. Taberna bat erosi zuten Aiztogile kalean 1987an eta **Bagare Euskal Tokia** sortu. Bertan, ekimen ugari egin ziren urte luzetan: ikastaroak, tailerrak, mendi irteerak prestatu, bilerak, hitzaldiak, kontzertuak, jaiak...Gasteizko euskaldunen bilgune ere bilakatu zen.

Azkenean, zenbait arazo zirela medio, itxi egin behar izan zuten, eta elkarte gastronomiko bihurtu. Gaur egun, elkarteko funtzionamendu osoa euskaraz egiten dute. Gune euskalduna jarraitzen du izaten.

3.3 GEU elkarte eta GEU GASTEIZ aldizkaria

3.3.1. **Joseba Gorostizak** kontatutakoaren arabera 90eko hamarkadaren hasieran jendea, euskaldun jendea jakina, gogotsu zegoen hizkuntzaren aldeko ekimenak aurrera eramateko eta bilera askoren ondoren, “**Gasteiz euskaldundu**” manifestua egin zen. Garai haietan 20 bat lagun biltzen ziren Magisteritza eskolan, eta elkarte kultural bat abian jartzea erabaki zuten.

Asmoa aldizkari euskalduna egitea zen, Arrasate Press aldizkaria zegoeneko martxan zegoen eta eragin izugarria izan zuen beste talde euskaldunengan. *Geu Gasteiz* aldizkaria atera zuten eta lehendabiziko alearekin sekulako porrota izan zuten. Ez zen batere saldu eta zorretan geratu ziren inprentarekin.

Hala ere, aldizkariak aurrera egin zuen, eta Gasteiz izan zen aldizkari euskalduna ateratzen lehen hiriburua: “*Geu Gasteiz*”.

Geu Gasteiz sortzea ez zela zaila izan esan zigun Josebak, eta benetakoa meritua handik aurrerako urteetan aldizkariari jaten eman zieten euskaltzaleena izan zela.

3.3.2. **Ainhoa Arriagak**, GEU elkarteko koordinatzaileak, aldizkariaren historian sakondu zuen:

“1992an jarri zen martxan eduki anitzeko aldizkari hau eta 2009ko abenduan, arazo ekonomikoak medio, itxi egin behar izan zen. Estitxu Breñas izan zen azken 12 urteetan aldizkariaren zuzendaria, eta Araban euskara hutsean egindako aldizkari bakarra izan zen. 3000 aleko tirada izaten zuen. “*Geu Gasteiz*” zen aldizkariaren izena hasieran, baina gero, “*GEU*” bilakatu zen”.

GEU elkarteak, aldizkaria ateratzeaz gain, beste helburu eta egitasmo ugari izan dituela 20 urte hauetan, eta egun, hasierako helburuei eusten

diela azaldu zuen Ainhoak: Gasteizen euskararen erabileraren inguruan eragitea eta Gasteizko euskaldunen komunitatea trinkotzea.

Ainhoak esan zigunez, GEU elkarteak 800 bazkide inguru ditu. Elkartea hobeto antolatzeko asmoz eta egitasmo berriei aurre egiteko Talde Eragilea osatu berri dute. Egitasmoak:: Gasteizko Irakurle Kluba, Kultur Errota eta GEUekin mendira, batetik; eta Gasteizko Euskararen Agenda eta Mintzalaguna bestetik. Aipamen berezia izan zuen Mintzalaguna egitasmoak: Geu elkarteak koordinatu eta Gasteizko euskalgintzarekin batera abian jarritako programak, ordurako 4. ikasturtea zuen, 80 talde martxan eta 556 lagun parte hartzen.

GEU elkarteko arduradunak beste hiru talde euskaltzale aipatu nahi izan zituen: Xagumendi, Euskharan eta EHE.

Xagumendi taldea 2003an sortu zen. Umeen inguruko euskarazko ekimenak antolatzen dituzte: tailerrak, irteerak, solasaldiak, ikus-entzunezkoak...

Euskharan taldea 1998an sortua. Zaramaga eta Aranbizkarra auzoetan ibili da orain arte euskararen aldeko lanean, eta Amaia zentroan egiten ditu hainbat lan: kulturgintza arlokoak, formazioari dagozkionak, aisialdiarekin lotutakoak, ikuse-entzunezkoak etab... Azken boladan San Martin auzora ere hedatu zirela esan ziguten; eta azken ekimenen artean, Helduen Hezkuntza Iraunkorrean euskarazko zortzi talde antolatu izana.

Euskal Herrian Euskaraz taldeak Gasteizen jarraitzen duela lanean esan zigun Ainhoak. Asimilazio egoerarekin amaitu eta euskaraz bizikotzen den hiria berreraikitze lanetan dabilatzala aipatu zigun.

Amaitzeko hausnarketa txiki bat: Gasteizen asko direla euskararen aldeko lanean ari diren pertsonak eta emaitzak horrelako egunetan ikusten direla.

4. HELDUEN ALFABETATZE ETA EUSKALDUNTZEA

I

Gizarte mugimenduen gaia amaitutzat eman eta “jaki” berri baten bila abiatu ginen: alfabetatze eta euskalduntzeaz hitz egingo ziguten gonbidatuena, zain genituen garai batean **Pinto Euskaltegia** izandako erakinean.

Aiztogile kalea utzi eta Pintore kalera jaitsi ginen. Gasteiz mendi taldearen egoitzaren aurrean, gogoratu genuen bertan izan zela Pinto euskaltegia urte luzez. Eta aitzakia horrekin, helduen alfabetatzea eta euskalduntzean Gasteizen egindako lan eskergaz hitz egiten hasi zitzaizkigun bost gonbidatuak:

**1960ko
hamarkadan
"Artes y Oficios"
eskolan
lehenengo gau-
eskolak antolatu
zirela.**

**1977ko udan
Juan Bautista
Gamiz
elkartekoak eta
Olabidekoak
bildu eta AEK
sortu zuten. 40
bat irakasle hasi
ziren AEK sortu
berri hartan.**

**Gau Eskolek
egiten zuten
lanari jarraipena
emateko,
euskaltegiak
sortu zirela.**

4.1 Kontxi Ibarrran

Emakume honek kontatu zigun 1960ko hamarkadan “Artes y Oficios” eskolan hasi zirela euskarazko klaseak jasotzen, eta lehenengo gau-eskolak antolatu zirela horren harira.

Ilusio izugarritz ekin zioten euskara ikasteari astean hiru egunetan arratsaldeko zazpietatik aurrera. Bi taldetan banatuta zeuden: batzuk ez zekiten ezer eta besteek alfabetatu nahi zuten.

Kontxik azaldu zigun ahal zuten metodologia erabiltzen zutela, euskara batua zer izango zen erabaki eta arautu gabe baitzegoen, artean. **Andoni Urrestarazu “Umandi”**ren metodoa eta gramatika erabiltzen zituzten euskara ikasteko, eta irakurtzeko, aldiz: **Ixaka Lopez-Mendizabal**en *Xabiertxo*, eta **Txomin Agirreren**, *Garoa* eta *Kresala*.

Mintzapraktika egiten zuten, hiztegia ikasi, euskal ohiturak eza-gutu... oso ondo pasatzen zuten.

4.2 Kepa Mendia

Euskalduntze eta alfabetatzearen hastapenak izan zituen ahoan:

Andoni Urrestarazu “Umandi” izan zela euskarazko lehen “irakaslea”:

- 1936an gartzelan euskara irakasten zuen.
- 1942an Gasteizen, bere etxean, euskara irakasten jarraitu zuen.
- 1953an Parisen, erbestean, euskarazko klaseak ematen zituen.

Andonik ereindako haziak eman zuen fruiturik: **Peli Presa**. Gaur egungo alfabetatze-euskalduntzeari Peli Presak eman zion hasiera Gasteizen. 1960ko hamarkadan Arte eta Lanbide eskolan hasi zen euskarazko klaseak ematen Peli (**Izaskun Arrue**, Umandiren arreba eta beste batzuk laguntzaile zituela), eta handik atera ziren Gasteizko lehenengo euskaldun berriak.

1967an garrantzi handiko gertakaria izan zen: Oñatiko Agustinoen komentutik 30 gazte euskaldun etorri ziren Gasteizko apaizgaitegira ikastera. Baina urte haietako gertakari politikoak zirela medio (1968ko maiatzeko iraultza, Burgosko epaiketak etab...), apaizgai gehienek sotana utzi eta euskalgintzan sartu ziren buru belarri. Agustino talde horren buru, **Eusebio Osa** euskaltzale ospetsua.

Gasteizko euskaltzaleak Euskal Mezaren ondoren hasi ziren biltzen eta han antolatu ziren talde bezala: “**Juan Bautista Gamiz**” elkartea osatu zuten

1976an Olabide ikastolan beste talde bat sortu zen **Hendrike Knörr**-en inguruan, eta Euskaltzaindiaren babesean erabaki zen **AEK** sortu behar zela: 1977ko udan Juan Bautista Gamiz elkartekoak eta Olabide-

koak bildu eta AEK sortu zuten. 40 bat irakasle hasi ziren AEK sortu berri hartan.

Urte gutxiren buruan hedakuntza izugarria izan zuen AEK-k Araba osoan, 1979/80 ikasturtean: 2100 ikasle inguru, horietatik 1800 Gasteizen; 130 irakasle, 100 baino gehiago Gasteizen.

Kepak kontatu bezala, hauek izan ziren alfabetatze eta euskalduntzearen hasierak, eta gaur egungo Mintzalagunaren antzeko zerbait ere bazuten: Toloño tabernara joaten ziren ikasitakoa praktikan jartzera.

4.3 M^a Jesus Aranburu

Udaberria euskaltegiko zuzendariak Gasteizera noiz eta zertara etorri zen azaldu zigun:

1976an heldu zen Gasteizera eta orduko giro euskaldunean murgildu zen. Olabide ikastolan lanean ari ziren, eta Foru Aldundiak beste ikastola batzuk jarri nahi zituen martxan, publikoak. Nolabait esatearren, bere egitekoa izan zen euskara klaseak antolatzea: euskara ikasi nahi zuen jendea eta balizko irakasleak lotu, lekua bilatu eta klaseak antolatu.

Langintza horretan ibili zen, aldundiko **Ikerne Oiartzabal**, **Joxe Karrera** eta **Izaskun Arruerekin** batera. Ahal zen lekuetan aritzen ziren: Joxe Karrerak utzitako lokal batean, elizetan-baldin eta apaiza euskalduna bazen- eta ikastetxeetan-adibidez, **Samaniego ikastetxean** hasi ziren ematen umeentzako eskolaz kanpoko lehenengo ikastaroak-.

Oraingo Mintzalagunean bezala ibiltzen zirela esan zuen: euskara zekiena, irakasle-mintzalaguntzaile lanetan; eta ikasi nahi zuena, ikasle-mintzalagun.

Hasiera batean musu-truk; baina, emeki-emeki, profesionaltasunerako bidea egiten joan ziren andereño eta maisu hauek. Dena den, 80ko hamarkadako kontuak dira horiek eta beste gonbidatu batek kontatu behar zizkigun.

4.4 Pili Diaz de Gereñu

Gasteizen asko eta asko bezala, Pili ikasle izatetik irakasle izatera pasatu zen.

Berak kontatu zuen euskalduntze lanak Euskaltzaindiaren menpe egotetik beste status bat izatera igaro zirela eta autonomia hartu zutela, AEK sendotzen eta trinkotzen joan zen heinean.

Gau Eskolek egiten zuten lanari jarraipena emateko, euskaltegiak sortu ziren, eta eskaera handiaren ondorioz, goizetara ere zabaltu behar izan zuten eskaintza. Bi, hiru eta bost orduko ikastaroak eskaintzeari eta herri euskaldunetan barnetegiak antolatzeari ekin zioten.

Gaur egun AEK, IKA, Udaberria, Hegoalde, Bai&By eta Mondragon Lingua dira euskara irakasten dutenak Gasteizen.

**1982an hasi ei
ziren bertsozale
batzuk
bertsoaren eta
Abel Enbeita
bertsolariaren
bueltan
elkartzen: hasi
euskal
txikiteoarekin
hasi ziren, eta
denbora tarte
laburrean
bertsolari eskola
antolatzea lortu
zuten.**

1984an, 4500 ikasle ari ziren euskara ikasten Araban. Gorakada izugarria izan zen, langabetuentzako diruz lagundutako ikastaroak antolatu ahal izan zituztelako.

80ko hamarkadakoak urte politak baina gogorrak izan ziren; borroka latzen ondoren atera zituzten egitasmoak aurrera: Eusko Jaurlaritzak HABE legea eta HABE euskaltegiak martxan jarri zituenean, zenbait irakaslek gose grebari ekin zioten erabaki horren aurka.

Dena den, bestelako ekimenik ere izan zen urte hauetan, pozgarriak eta oraindik ere burutzen direnak: 1980an abiatu zen lehenengo aldiz KORRIKA Euskal Herrian barrena, AEK-k antolatua.

4.5 Gorka Arbulu

Gaur egun AEK, IKA, Udaberria, Hegoalde, Bai&By eta Mondragon Lingua dira

euskara irakasten dutenak Gasteizen.

90eko hamarkadan irakasleen homologazio beharra etorri zen eta horrek profesionaltasunerako bidea ireki zuen; dena den, oraindik ez da helburu hori guztiz lortu.

Gaurko erronkarik handienak honako hauek direla esan zigun Gorkak:

Erabilera suspertzea, euskaldunon komunitatea trinkotzea, kalean euskaraz egitea, lan munduko normalizazio planak garatzea etab... Euskaltegien munduan: matrikulen kopurua handitzea eta Mintzalagun egitasmoan 1000 lagunaren parte hartzea lortzea.

Asmo eta helburu horiek aipatuta amaitu zuen Gorkak bere kontakizuna.

5. GASTEIZ ETA KULTURA EUSKALDUNA

I

Aihotz plazara hurbildu ginen ibilbideko azken azalpenak entzutera. Kulturaren arlo ezberdinetan euskarak zer presentzia izan duen azaldu ziguten gonbidatuek:

5.1 Bertsolaritza

Asier Otamendik egin zizkigun lehenengo hitzak, eta azaldu Aihotz plaza dela Arabako bertsolari eta bertsoazaleen ikur nagusia, erreferente indartsuena, bertan egiten baitira jaietako bertso saioak eta plazaren azpialdean baitzegoen **Txusta taberna**, Arabako bertsolarien topalekua. Beraz, leku egokian geunden.

Historiari erreparatuz hasi zuen azalpena, eta kontatu zigun duela bi mende inguru, XVIII. mendean hain zuzen ere, Sabandoko **Juan Bau-**

tista Gamizek (1696-1773) bertso idatzi batzuk egin zituela. Hona hemen horietako baten hasiera:

Erderaz eztuzu nay
ene viotza
euzqueraz copla eguiten
eztut nic lotza
ycuzco deugu
albadaygu eguin zerbait
nola beardegu

XIX mendean eta XX. mendearen lehenengo erdian, aldiz, aipamen berezirik beharko lukeen ezer ez dugu aurkitzen. Garai latzak izan ziren euskararentzat Araban. Kuriosidade gisa kontatu zigun Uztapide bertsolari handia Gasteizen izan zela gaztelania ikasten.

XX.mendeko 80ko hamarkadara jauzi egin, eta azaldu zigun hainbat euskaltzalek bertsolaritza aldeko lehenengo ekimena martxan jarri zutela. Ekimen horren berri izateko **Rikardo Glez de Duranari** eman zion hitza:

1982an hasi ei ziren bertsozale batzuk bertsoaren eta Abel Enbeita bertsolariaren bueltan elkartzen: hasi euskal txikiteoarekin hasi ziren, eta denbora tarte laburrean bertsolari eskola antolatzea lortu zuten; bidean udalari lokalak eskatu, honek ukatu, eta azkenean **Lantzale elkarte**an biltzen hasi ziren.

Bertsolari eskola, beraz, elkarte horretan hasi zen, baina laster egin zuten salto euren “egoitza” izango zen Txusta tabernara. Taberna honetan landu zuten beren burua **Rikardo, Serapio, Xabi, Jon** eta enparauek, Gasteizko aro modernoko lehenengo bertsolariak. Txustan bertan egin ziren bertsolari.

1984an antolatu zen **Arabako Bertsolari Txapelketa** lehen aldiz. Rikardok esan zigunaren arabera, egin egin zen, baina arrasto gazi-gozoa utzi zien: taldeko zenbaitzuk betiko utzi zioten bertsoak kantatzeari.

Jarraitu zutenek, ordea, Prudentzio Deuna sariketa antolatzeari ekin zioten 90eko hamarkadan, orduan ere, **Abel Enbeitaren** laguntzaz. Sariketa horretan kantatu zituen bere lehengo bertsoak Asier Otamendik, geroago Arabako txapeldun izango zenak. Eta Asierri eman zion hitza Rikardok hortik aurrekoak kontatzen zitzaizkion.

Rikardok esan bezala Txusta taberna izan zen gasteiztar eta gasteiztarrak gazte euskaldun bertsozale talde batentzat “bertso eskola”, baina taldea handitzen joan ahala beste leku baten beharra somatu eta **Amaia Zentrora** joan ziren.

**Apurka-apurka
sendotzen joan
zen Arabako
bertsolarien
antolakuntza, eta
1982an
lagunarteko
bertso eskola
hark, koskortu
ahala,
erakundetzeari
ekin zion:
1993ko
maiatzean sortu
zuten Arabako
Bertsozale
Elkartea.**

Gorka Knörr,
Hertzainak,
Betagarri.
Hiru izen
garrantzitsu
euskal musikaren
arloan, eta
hirurak
gasteiztarrak!

Jarraitu zuten Prudentzio Deuna sariak antolatzen eta 2002an sekulako jauzia egin zuten: **Arabako Bertso Txapelketa** Printzipal Antzokira eraman zuten. Emaiza? Ezin hobea, 600 bat lagun bildu baitziren finala ikustera.

Apurka-apurka sendotzen joan zen Arabako bertsolarien antolakuntza, eta 1982an lagunarteko bertso eskola hark, koskortu ahala, erakundetzeari ekin zion: 1993ko maiatzean sortu zuten **Arabako Bertsozale Elkarte**a. Handik aurrera lan eskerga egin dute Arabako bertsozaleek.

Asierren aburuz, indartsu dago bertsozaleen mugimendua eta ilusioz begiratzen diote etorkizunari, sorpresa ugari ekarriko dituelakoan.

5.2 Literatura eta euskara

Galdera batekin hasi zuen bere azalpena **Iban Zaldia** idazle eta irakasleak: *“Zein da euskal hiri literarioena?”*

Baita erantzun ere:

“Jendeak ez luke esango Gasteiz dela, baina hala da”.

Ibanek agindu zigun demostratuko zuela Gasteiz dela euskal hiririk literarioena

XIX.mendean, 1850-1880 urteen bueltan, Gasteizi **“Iparraldeko Ateenas”** esaten zioten, Ibanen iritziz *“agian arranditsuegi”*.

XX. mendean, erdarazko literaturan, bi idazle handi aipatu zituen: **Ignacio Aldekoa** eta **Ernestina de Champourcin**. Baina idazle hauek Gasteizen jaioak izan arren Madrilen egin zuten bizitza gehiena eta lanik handiena.

Beraz, gaztelaniaz idatzitako literaturan, behinik behin, ez da gauza handirik izan gure hirian azken bi mendeetan.

Euskaraz egindako literaturan, berriz, 1990etik gaur egunera, idazle asko -eta lan ugari- izan ditugu gure hirian:

- Gasteizen jaiotakoak: Xabier Montoia, Rikardo Arregi, Karmele Jaio, Edu Zelaieta eta Katixa Agirre.
- Gasteizen jaio ez, baina bertan bizi izan direnak: Jon Arretxe, Kirmen Uribe eta Angel Erro.
- Beste nonbaiten jaio, baina, egun, Gasteizen bizi eta lan egiten dutenak: Bernardo Atxaga, Patxi Zubizarreta, Josean Sagastizabal, Xabier Etxaniz, Gerardo Markuleta, Hedoi Etxarte, Manu Lopez, Lurdes Oñaederra...

Liburu salduenei eta idazle arrakastatsuenei so eginez gero ere, Gasteiz punta-puntan dago: Karmele Jaio eta Bernardo Atxaga dira eus-

kal literaturan salduenetarikoak, eta Josean Sagastizabalek bere “*Kutxi-dazu bidea, Ixabel*” liburua best-seller bilakatu zuen.

Aurreko hitzek literatura Gasteizen laburbiltzen zuten, baina Gasteiz literaturan ere aipatu nahi izan zigun gonbidatuak eta bi aipamen berezi egin zituen: Xabier Montoiaren “*Gasteizko Hondartzak*” eta Rikardo Arregiren “*Kartografia*”.

Egileak albo batera utzita, hiru gunek garrantzitsu ekarri zituen gogora Ibanek:

- **Gasteizko Letren Fakultatea:** Euskal Filologia eta Itzulpengintza ikasketak eskaintzen dituen hainbat letra-emakume eta gizon erakarri dituelako Gasteizera.
- **Gasteizko Irakurle Kluba:** bederatzi urte daramatzalako lanean tai gabe talde honek (hilean behin, idazle zein irakurleak liburu baten bueltan biltzen dira, aukeratutako lana komentatzeko).
- Gasteiztik irten, Barrundia aldera jo, eta han aurki dezakegu Larrea herria, **Juan Perez de Lazarraga** idazlearen jaioterria. Iban Zalduak idazle honen Esquizkribua (1564-1567) aipatu zigun, Euskal Herriko hegoaldeko letren historia ulertzeko ezinbesteko delako lan hori.

Beraz, eta ondorio gisa, honakoa esan zigun hizlariak:

“Dagoeneko Gasteizi, “Iparraldeko Atenas” baino; aurrerantzean, “**Hegoaldeko Atenas**” deituko diogu, bere euskal nortasun literarioari erreparatuta eta Euskal nazio ikuspegi batetik begiratuta”.

5.3 Euskal musika Gasteizen

Aihotz plaza bertsolaritzarentzat oso garrantzitsua zela esan zigun Asier Otamendik; Iban Zalduak, aldiz, idazleren bati eskua mozteko ez baldin bazen, ez ziola harreman berezirik ikusten zioskun; eta **Iñaki Lazkano Lizundiak** plaza horren izaera euskaldun eta euskaltzalea azpimarratu zuen berriro, bertan egiten baitira urtero Andra Mari Zuriaren jaietan euskal taldeen kontzertuak.

Gasteiz, euskara eta musika uztartu nahi izatekotan, hiru data eta hiru izen azpimarratu zituen Iñakik:

1974: **Gorka Knörr**-ek bere lehenengo diska kaleratu zuen: “*Araba kantant*”.

1984: **Hertzainak** taldeak izen bereko beren lehen lana atera zuen.

1994: **Betagarri** taldeak lehen maketa garabatu zuen: hasiberrien “L”-a zuen izenburutzat.

Hiru izen garrantzitsu euskal musikaren arloan, eta hirurak gasteiztarak!

Urteetan aurrera joan ahala eta Betagarri taldeak gero eta entzute

handiagoa lortzen zuen bitartean, beste izen bat eta beste data bat ekarri zigun gogora:

2004: **Neubat** stoner-rock taldeak lehenengo diska luzea argitaratzen du: “Dantzaldiko erreginak”.

1974an hasi eta hamar urtero euskal musikarekin lotutako gertaera gogoangarri bat izan dela gure hirian aipatu zigun Iñakik, eta baita desio bat eskatu ere: ea 2014an gogoratzeko moduko zerbait gertatzen den, euskarazko rap talde bat, akaso?

Musikaren inguruko beste hainbat izen eta izan gasteiztar badira:

- **Patxi Villamor** (Gasteiz 1955): lehen lana 1977an, “*Nora goaz*” izan zen.
- **Xabier Montoia** (Gasteiz 1955): Idazle eta musikagile gasteiztarra. Hertzainak (1983), M-ak (1983-1991) eta egun, Xabier Montoia gisa dabilena.
- **Ruper Ordorika**: Nahiz eta gasteiztarra ez izan, hemen bizi izan zen, eta hemengo musikariekin jo izan du: **Mugalaria**k taldekoekin ibili zen eta dabil.
- **Bizkar Hezurra**: Korroskada musika taldearen errautsetatik sortua. 90eko hamarkadako Funk-metal doinuak euskarara ekarri zituzten.
- **Gari**: Hertzainak taldeko abeslariak, taldea desegin eta gero, barkarka ekin zion bere lanari.
- **Mikel Urdangarin**: 1995etik hona Gasteiz du bizitoki eta lantoki.
- **Arawak**: 1996an POTATO taldeko zenbait kidek beste reggae talde bat sortu zuten: Arawak; eta aurreraxeago euskaldundu egin zuten:
- **Trepi eta Arawak**, “*Sorterrira*” diska argitaratu zuten.
- **Kontrairo**: hasieran, Trikitrixa Kontrairo taldea & The Big Band (probisionala) Izenak dioen bezala triki-folk taldea. 1995ean atera zuten lehenengo diska.
- **Maldan Behera**: punk-rocka.
- **Garagardo gura**: Ska doinuak euskaraz.
- **Xasta**: 2002an sortu zen metal doinuak euskaraz egin nahian.
- **Bronze, Trunbo eta Sacramento** dira rock-aren munduan gasteizen sortutako azken talde euskaldunak.

Musikagileez gain, euskal musika entzuteko eta sustatzeko lekuak aipatu zizkigun Iñakik:

- **Tabernak**: Txantxiku, Txo, Parral, Hala Bedi, Gora etab...
- **Gaztetxea**: musika gune garrantzitsua Gasteizen.
- **Zuloa** liburu eta diska denda.
- **Hala Bedi irratia**: garrantzi handia izan du irratia honek urteetan zehar euskal musikaren sustapenean.

- **Parral taberna:** azken hamar urteetan eta GEU elkartearekin batera, hilean behin, euskarazko ekitaldi kultural bat programatu izan da taberna honetan, gehienetan musika ekitaldia.

Kulturaren azalpenarekin batera bukatu zen ibilbidea, baina ez egun horretako egitaraua. Aihotz plazatik mendebaldera jauzi egin, Errementari kalean *GASTEIZ KANTUZ* ekimenekoekin elkartu, eta kontukantari abiatu ginen, berriro ere, Alde Zaharreko kaleak euskal hotsez betetzera. ●